


DANZA | DANTZA

# Ballet du Grand Théâtre de Genève

## Ukiyo-e

**Sidi Larbi Cherkaoui**

Urriak 8 octubre

FUNDACIÓN
BALUARTE
FUNDAZIOA


Sidi Larbi Cherkaoui

# Ficha artística Fitxa artistikoa

**Sidi Larbi Cherkaoui,**
coreografía | koreografia
**Alexander Dodge,**
escenografía | eszenografia
**Dominique Drillot,**
iluminación | argiztapena
**Yuima Nakazoto,**
vestuario | jantziak
**Igor Cardellini,**
dramaturgia | dramaturgia
**Szymon Brzóska**
**y Alexandre Dai Castaing,**
música | musika

**Pau Aran Gimeno**
**y Dayan Akhmedgaliev,**
Asistentes de la coreografía |
Koreografiaren laguntzaileak
**Manuel Renard y Pascal Marty**
Maestros repetidores |
Maisu errepikatzaileak

**Kazutomi Kozuki "Tsuki",**
canto y danza | kantua eta dantza
**Shogo Yoshii,**
canto, shinobue, nohkan y kokyu |
kantua, shinobue, nohkan eta kokyu
**Johann Vacher,**
piano | pianoa

Trío de cuerdas:
**Amia Janicki,**
violín | biolina
**Natanael Ferreira Dos Santos,**
viola | biola
**Gabriel Esteban,**
violonchelo | biolontxeloa
**Alexandre Dai Castaing,**
percusión | perkusioa

**Una creación original de**
**Sorkuntza orijinala:**
Ballet du Grand Théâtre
de Genève

**Estreno absoluto**
**Estreinaldi absolutua:**
Grand Théâtre de Genève en
noviembre de 2022

**Coproducción de**
**Ekoizpen kideak:**
Maison de la Danse, Lyon,
Biennale de la Danse de Lyon,
2023, Eastman et Fondazione
Romaeuropa Arte e Cultura

**Agradecimientos a**
**Esker ona:**
Kae Tempest y Domino Publi-
shing Company Limited por la
amable autorización de uso del
texto *Hold Your Own*

**Duración aproximada:**
**75' (sin pausa)**
**Iraupena:**
**75' inguru (etenik gabe)**

¿Cómo podemos sobrevivir juntos en un mundo donde las crisis adquieren una dimensión crónica? Una pregunta acuciante y de resonancia global sobre nuestra capacidad de resiliencia. En ***Ukiyo-e***, Sidi Larbi Cherkaoui nos invita a meditar sobre ello. Para diseñar esta pieza, el coreógrafo se inspiró en el término japonés del título, que significa "imágenes del mundo flotante". Concepto que dio nombre al movimiento artístico surgido en el periodo Edo centrado en capturar el momento presente. El espectáculo persigue posibles caminos en este universo suspendido y examina las constantes negociaciones a las que están sujetos nuestros cuerpos –físicos y sociales–.

***Ukiyo-e*** examina las tensiones existentes entre el movimiento limitado y la expansión turbulenta, entre compartimentación y apertura o entre aislamiento y convivencia. Creada con los 22 artistas del Ballet du Grand Théâtre de Genève, la coreografía presenta una serie de personajes en pos de la simbiosis con su entorno y del equilibrio ante la impermanencia. Los cuerpos se activan como sistemas de intercambio, en constante metamorfosis. Más allá de las dualidades, Sidi Larbi Cherkaoui propone cuerpos que no terminan en la piel y que se confundan entre sí.

Esta coreografía de superación está en el corazón de una estructura en movimiento, motivo recurrente en las piezas de Sidi Larbi Cherkaoui. La decoración, diseñada en colaboración con el escenógrafo Alexander Dodge, toma la forma de un entramado de escaleras imposibles en las que los bailarines se pierden. Estas estructuras móviles, laberínticas y ambivalentes -puentes posibles, pero también obstáculos-, evocan tanto la ascensión como el abismo. Es en esta serie de grados, potencialmente habilitantes o incapacitantes, que los cuerpos están llamados a unirse, dialogar y contaminarse unos a otros.

La actuación está acompañada de composiciones contemporáneas de Szymon Brzóska para trío de cuerdas y piano, así como creaciones rítmicas electrónicas y de percusión de Alexandre Dai Castaing. Reunidos en ***Ukiyo-e***, estos universos resuenan con la búsqueda de reparación y trascendencia desplegada por el ballet.

Nola moldatuko gara elkarrekin bizirik irauteko, krisialdiak dimentsio kronikoa hartzen ari diren mundu honetan? Galdera premiatsua da, eta oihartzun globalekoa, gure erresilientzia-gaitasunaz galde egiten diguna. ***Ukiyo-e*** lanean, Sidi Larbi Cherkaoui egileak gonbitea luzatzen digu, horri buruz gogoeta egin dezagun. Pieza hau diseinatzeko, izenburuko japonierazko hitza hartu zuen koreografoak inspiraziotzat, haren esanahia "mundu flotatzailearen irudiak" baita. Kontzeptu horrek eman zion izena "Edo" aldian sortutako mugimendu artistikoari. Oraina atxikitzea zen mugimenduaren grina. Ikuskizunak hainbat bide posible jarraitzen ditu unibertso eseki horretan, eta gure gorputzak -fisikoak nahiz sozialak- etengabe jasaten ari diren negoziazioak aztertzen ditu.

***Ukiyo-e*** lanean aztertzen da nolako tenkadurak sortzen diren mugimendu mugatuaren eta hedapen zurrunbilotsuaren artean, konpartimentutan ixtearen eta zabal irekitzearen artean, edo isolamenduaren eta elkarbizitzaren artean. Koreografia hau prestatu zen Ballet du Grand Théâtre de Genève konpainiako 22 artistekin lankidetzan, eta aurkezten dizkigun pertsonaiak ingurunearekiko sinbiosiaren eta iraunkortasun ezarekiko orekaren bila dabiltza. Bikoiztasunetatik harago, Sidi Larbi Cherkaoui-k proposatzen dizkigun gorputzak ez dira larruazalean amaitzen, elkarren artean nahasten baitira.

Gainditze-bidea islatu nahi duen koreografia hau egitura mugikor baten bihotzean kokatzen da, hau da, Sidi Larbi Cherkaoui-ren lanetan ohikoa den moduan. Dekorazioa Alexander Dodge eszenografoarekin lankidetzan diseinatu zen, eskailera ezinezkoez osatutako egitura baten gisara, non dantzariak galdu egiten diren. Egitura mugikor horiek laberintikoak eta balio bikoitzekoak -izan litezke zubi, baina oztopo ere bai- agertzen zaizkigu, eta gorabidea bezala amildegia ere irudikatzen ahal dute. Gradu sail horiek gaitasun emaile edo kentzaile izaten ahal dira, eta gorputzak elkartu beharrak dira, eta elkarrekin solastu eta elkar kutsatu behar dute.

Emanaldia girotuko dute Szymon Brzóska egileak harizko hirukote eta pianoarentzat egindako konposizio garaikideek eta Alexandre Dai Castaing-en erritmo eta perkusio lan elektronikoek. ***Ukiyo-e*** izeneko obra honetan elkartuta, unibertso horiek bat egiten dute balletak irudikatzen duen erreparazio eta transzendentzia gogoarekin.

**Elenco**
**Dantzariak**

Yumi Aizawa
Céline Allain
Pau Aran Gimeno
Jared Brown
Carlos Adelson
Anna Cenzuales
Zoé Charpentier
Quintin Cianci
Oscar Comesaña
Salgueiro
Diana Dias Duarte
Ricardo Gomes Macedo
Armando González Besa
Zoe Hollinshead
Mason Kelly
Kazutomi Kozuki
Julio León Torres
Emilie Meeus
Léo Merrien
Stefanie Noll
Juan Pérez Cardona
Luca Scaduto
Sara Shigenari
Geoffrey Van Dyck
Nahuel Vega
Madeline Wong



# Biografía Biografia

## Ballet du Grand Théâtre de Genève

Desde su creación en 1960, el Ballet del Gran Teatro de Ginebra se ha propuesto explorar la pluralidad estilística en la danza contemporánea. Bajo el impulso de Philippe Cohen, la compañía sigue desde hace 18 años una línea artística que apuesta con determinación a la creación coreográfica, sin perder de vista los fundamentos de la danza. Al prestigio del que goza la compañía han contribuido incontables reinterpretaciones de los grandes clásicos del ballet por parte de las/os mejores coreógrafas/os jóvenes de nuestra época. Con sus 22 bailarinas/es de formación clásica, el ballet es en la actualidad todo un referente a nivel internacional.

En julio de 2022, tras siete años como director del Ballet Vlaanderen, Sidi Larbi Cherkaoui sustituirá a Philippe Cohen en la conducción del Ballet de Ginebra. Bailarín, coreógrafo y figura destacada de la escena contemporánea belga, en su práctica Cherkaoui se muestra abierto a disciplinas como el cine, los musicales y la música pop. De la afinidad que posee con el ballet y la ópera han surgido algunas de sus obras más duraderas, como también colaboraciones interdisciplinarias fascinantes con artistas visuales, diseñadoras/es y músicas/os. Entre sus creaciones como coreógrafo invitado regular del Gran Teatro de Ginebra destacan Loin en 2005, *Fall* en octubre de 2019, *Exhibition* en noviembre de 2020 y *Peléas y Mélisande* en enero de 2021.

1960an sortu zenetik, Genevako Antzoki Handiaren Balletak helburutzat hartu zuen estiloen aniztasuna bilatzea dantza garaikidean. Philippe Cohenen bultzadaz, orain 18 urte direla sorkuntza koreografikoaren aldeko apustu grinatsua da konpainiak darabilen ildo artistikoa, dantzaren funtsa bistatik batere galdu gabe. Honezkero lortu duen ospearen oinarrian daude, inondik ere, gure garaiko koreograforik onenek balletaren klasiko handien gainean egindako interpretazio berritzaile ugari. Prestakuntza klasikoko 22 dantzariz osatzen den ballet hau dagoeneko nazioarte mailako erreferente argia bihurtu da.

2022ko uztailean, zazpi urtez Ballet Vlaanderen konpainiaren zuzendari aritu ondoren, Sidi Larbi Cherkaoui Philippe Cohen ordezkatuz hasi zen Genevako Balleta gidatzeko zereginean. Dantzari eta koreografo hau Belgikako dantza garaikidearen irudi ospetsua da, eta bere jardunbidean irekia azaldu izan da beste hainbat diziplina lantzeko, esaterako, zinea, musikalak edo pop musika. Balletarekiko eta operarekiko duen begikotasunetik sortu dira haren obra iraunkorrenetako zenbait, eta orobat, diziplinarteko hainbat lankidetza-lan liluragarri, artista bisualekin, diseinatzaileekin eta musikariekin. Genevako Antzoki Handiaren ohiko koreografo gonbidatu gisa egin zituen sorkuntza-lanetatik azpimarragarriak dira Loin, 2005ekoa; *Fall*, 2019ko urrikoa; *Exhibition*, 2020ko azarokoa; eta *Pelléas et Mélisande*, 2021eko urtarrilekoa.

## Sidi Larbi Cherkaoui

Sidi Larbi Cherkaoui es una figura mundialmente conocida como pocas en la danza contemporánea: un brillante autor-coreógrafo, con alrededor de un centenar de espectáculos en gira por todo el mundo, y exdirector artístico del Ballet Real de Flandes (2015-22). La obra coreográfica del belga-marroquí está repleta de producciones memorables, algunas de ellas originadas en Ginebra (*Loin*, 2005) y otras en los principales escenarios y platós de vídeo de todo el mundo (*Puz/zle* en el Festival de Aviñón en 2012, por nombrar sólo una). En el viaje inaugural de Marina Abramović como escenógrafa, y con Damien Jalet como cocreador, la interpretación arremolinada, sombría y oscuramente mecánica de Cherkaoui del *Boléro* de Ravel para el Ballet de la Ópera de París causó sensación en el Palais Garnier en 2013 y sigue siendo una de sus obras más icónicas. piezas. El trío se reformó para *Pelléas et Mélisande* en 2018 en el Opera Ballet Vlaanderen; una producción que fue reavivada y retransmitida en directo en Ginebra. De compañeros bailarines a socios creativos, Cherkaoui y Jalet forman un vínculo artístico único: es lógico que Damien Jalet se una a Cherkaoui y al Ballet de Ginebra como artista asociado.

Sidi Larbi Cherkaoui mundu osoan ezaguna da, dantza garaikidean ez baitira ugari berak adinako ospea dutenak. Sortzaile-koreografo distiratsua da, mundu osoan jiran dabiltzan ehunka ikuskizunen egilea, eta Flandriako Errege Balletaren zuzendari artistiko ohia (2015-2022). Belgikar-marokoar honen obra koreografikoan ezin konta ahala ekoizpen gogoangarri daude, haietako batzuk Genevan sortuak (*Loin*, 2005) eta beste hainbat mundu osoko agertoki eta bideo-plato nagusienetan (*Puz/zle*, Avignongo 2012ko Festibalean, bat aipatzearren). Marina Abramović-en eszenografia-lan baten estreinako bidaian, eta Damien Jalet zela sorkuntza-kidea, Cherkaouik Parisko Operaren Balleterako Ravelen *Boléro* piezaz egin zuen interpretazio zurrunbilotsu, goibel eta mekanika ilunekoak zirrara handia eragin zuen Palais Garnier antzokian 2013an, eta haren obra ikonikoenetakoa da, oraindik ere. Hirukotea eraberritu zen *Pelléas et Mélisande* obra 2018an Opera Ballet Vlaanderen konpainiarekin aurkezteko; ekoizpen hura bizi-berritu eta berriro eman zen zuzenean Genevan. Dantzakide izatetik sorkuntza-kide izatera igaro ziren Cherkaoui eta Jalet, bien artean lokarri artistiko paregabea eratuz: logikoa da Damien Jalet elkartzea Cherkaouirekin eta Genevako Balletarekin, artista elkartu gisa.



Próximo espectáculo
Hurrengo ikuskizuna

CLÁSICA | KLASIKA

# Hermanas Labèque
## Piano

Domingo 19 noviembre
Azaroak 19 igandea
Hora | Ordu 18:30

FUNDACIÓN BALUARTE FUNDAZIOA

Fundación
Baluarte
Fundazioa

Plaza de la Constitución 31002
Pamplona-Iruña
T. 948 066 066
www.fundacionbaluarte.com
www.baluarte.com
info@fundacionbaluarte.com

facebook.com/FundacionBaluarteFundazioa
twitter/FundBaluarte
instagram.com/fundbaluarte
youtube.com/FundacionBaluarte
Fundación Baluarte

FUNDACIÓN
BALUARTE
FUNDAZIOA

Gobierno de Navarra · Nafarroako Gobernua · FUNDACIÓN CAJANAVARRA · Fundación "la Caixa" · AUTOPISTAS DE NAVARRA · El Corte Inglés · MONDRAGON

Este programa se ha impreso utilizando papel reciclado
Eskuko programa hau paper birziklatuan inprimatu da

DL.NA 2323-2022